

GATIBUAK

HELENA TABERNAREN filma



Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
ZINEMIRA



Zaporeak

LAMIA

márgines
distribución

SINOPSISIA

Mediterraneoan, gure zibilizazioaren sorrera bizi zuen itsaso berean, mila errefuxiatu daude Europak noiz hartu zain. Kontinente zaharraren ateetan, itxaropenaren garra bizirik mantentzeko borrokan dabilta egunero, nahiz eta oso egoera estuan bizirauten duten.

GATIBUAK epe luzean zain dauden errefuxiatuen eguneroko bizitza irudikatzen du. Atenaseko eraikin okupatuetan edota herrialdean zehar barreiatuak dauden errefuxiatu zelaietan bizi diren gizonezko eta emakumezko horiek euren bizitzekin aurrera egiten utziko dien dokumentazioaren zain daude.



HELENA TABERNAREN BIOFILMOGRAFIA

(Altsasu, Nafarroa) Bere ibilbidea proiektuak hautatzeko izan duen koherentzia eta zinema estilo oso pertsonal batek markatu ditu.

2002an bere ekoiztetxe propioa sortu zuen, Lamia Producciones. 2006an Emakume zinemagile eta ikusentzunekoen elkarte (CIMA) sortu zuen.

Bere pelikuletan gizarte gaiak eta interes unibertsalekoak jorratu ditu, besteak beste, terrorismoa, emigrazioa, elizaren parte hartzea Gerra Zibilean, genero biolentzia edota sekten manipulazioa.

Bere lehen filma, Yoyes (2000), urte hartan nazioartean gehien saritutako espainiar filmetako bat izan zen, arrakasta handienetakoa izan zuen filma izateaz gain. Bere bigarren pelikula Valladolideko SEMINCI-n aurkeztutako Extranjeras dokumentala izan zen. 2008an, La Buena Nueva zuzendu zuen, SEMINCI-ko aktore onenaren saria jaso zuen filma. 2010ean Nagore estreinatu zuen, Valladolideko jaialdian aurkeztua ere, San Ferminetan gertatutako ikasle gazte baten hilketa jorratzen duen dokumentala. Bere azken pelikula, Acantilado, Malagako Zinema Jaialdiko Sail Ofizialean aurkeztu zen.



PARTE-HARTZAILEAK

Jamal Alkaed
Mohammad Ali Madanieh
Ahmad Miken
Aram Aziz
Lidia Márquez
Sylvano Garel
Christele Cadoum
Leonie Amang
Rosalie Djemba

FITXA TEKNIKOA

Gidoia eta Zuzendaritza	Helena Taberna
Ekoizpena	Helena Taberna e Iker Ganuza
Ekoizle eragilea	Iker Ganuza
Musika	Ignacio Bilbao
Argazki zuzendaria	Frodo García-Conde
Editorea	Renato Sanjuán
Soinu teknikaria eta editorea	Jorge Alarcón
Distribuzioa	Márgenes

FITXA TEKNIKOA

Luzemetrai dokumentala
Kolorea/DCP
Iraupena: 72 min.
Soinua: DOLBY 5.1
Aspect ratio: 1.85

Varados Zaporeak Proiektuaren ekimena da, Lamiarekin koprodukzioan gauzatu. Zaporeak Proiektuak 2016az geroztik darama Grezian gatibu dauden pertsona errefuxiatuen duintasuna elikatzen, horretarako, otordu duinak kozinatu eta banatuz. 2016ko martxoaz geroztik 1.000.000 otordu baino gehiago banatu ditu Chios, Atenas, Patras eta Lesbosen. Gaur egun, 1.600 otordu banatzen ditu Lesbosenko Moria kanpalekuan bizi diren errefuxiatuen artean.



Prensa

Pablo Caballero: 91 523 82 95 | pablo@margenes.org

Eva Calleja: 660 57 30 49 | evacalleja@prismaideas.es

Programazioa

Annamaria Scaramella: 633 61 49 35 | annamaria@margenes.org

